

AGUR BERO ETA HUNKIGARRIA

EUSKAL KULTURAREN MUNDUA DOLUZ JANTZI ZEN ATZO, ANDOLIN EGUZKITZA IDAZLE, HIZKUNTZALARI ETA EUSKALTZAINARI AZKEN AGURRA EMATEKO

IRUNE BERRO - SANTURTZ

Santurtziko San Jorge eliza txiki geratu zen atzo, Andolin Eguzkitza idazle, hizkuntzalari eta euskaltzain zenari azken agurra ematera bertara batutako jende uholdea hartzeko. Arratsaldeko seiak jotzerako, herritar andana bildua zen elizaren kanpokaldean. Lagun ugari. Euskal kulturaren, politikaren eta sindikalgin-tzaren aurpegi ezagun asko.

Askotariko jendeak egin zuen bat atzo, Andolinek bere herriarekiko zuen konpromisoak bultzatuta: Lutxo Egia, Juan Ramon Madariaga, Iñigo Aranbarri, Joan Mari Irigoien, Edorta Jimenez, Tere Irastorza eta Jose Angel Irigarai idazleak, BERRIAKO zuzendari Martxelo Otamendi eta EKTko Administrazio Kontseiluko idazkari Joan Mari Larraite, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Xabier Mendiguren Bereziartu Kontseiluko idazkari nagusia, Patxi Zabaleta Aralarreko koordinatzailea, Javier Cruz Santurtziko alkatea, Jose Juan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahal-dun nagusia, Gotzon Lobera Bizkaiko Aldundiko Euskara zuzendaria, Juan Ignacio Perez Iglesias eta Iñaki Antiguedad EHUko errektoregaiak, Tasio Erkizia eta Karmelo Landa mahai-kide ohiak, Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusia, Itziar Lopategi LABeko kidea...

Eliza barruan, sakristian, Josu anaia zuen zain Andolinek. Pontevedrako espetxetik segurtasun neurri handien artean ekarri zuten, atzo, Santurtzira. Josuren emazte Enkarni Blancok ez zuen Andolinen ondoan egoterikizan. Epailaiek ez zion baimenik eman Madrilgo Soto del Real espetxetik ateratzeko.

Ikurrinaren babesean

Minaren ezintasun eta isiltasunean sartu zuten San Jorge eliza barrura ikurrinaren estalitako hil-kutxa Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia eta Xabier Kintana euskaltzain bizkaitarrek. Jean Haritxelhar euskaltzainburua ondoran zutela, Andolinen sendiarekin batera, euskaltzainek bete zituzten elizako arratsaldeko jesar-



EUSKAL KULTURAREN ordezkari asko bildu zuten hiletak: Argazkietan, Joseba Tobar Arbulu, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Beñat Oiarzabal Txomin Peillen, Miren Azkarate... LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI PRESS

lekuak. Samina zen nagusi. Etsipena. Negar malkoak.

Santurtziko Bihotz Gazte ikastolako dantzari eta txistulariek Agur Jauna doinuaren babesean hartu zuten Andolin. Elizaren barrukaldetik koruaren ahotsek bidea eman zieten kanpokaldeko txistuen doinuei. Betiko izango da Andolin sortzen eta hazten ikusi zuen herrian, Santurtzin. Han eman zioten lur atzo.

Han jaso zuen herrikide ugari-
ren agurrak sentitu eta zitzoena. Arratsaldearen hotzean omenaldirik bero eta hungigarriena.



JOSU EGUZKITZA, Andolinen anaia, segurtasun neurri handien artean ekarri zuten espetxetik. ARGAZKI PRESS

Iritzia ① TXILLARDEGI (Idazlea)

Andolin hil duk

Hiz horietek esanda eman zidaten berri hitza 24ko goizean Joseba Tobar Arbulu adis-kideak eta M. Edurne Eguzkitza emazteak beren zoinak nekez menderatzen zituztelarik.

Eta zerbait urratu zen nigan, beste euskaltzale asko eta askorengan bezala.

1972an ezagutu nuen Andolin, ni Iparraldean errefuxiatu gisa bizi nintzelarik. Prentsa bidez bakarrik; eta esku-titz publiko batez agutu nuen Zeruko Argia astearian: Andolin Eguzkitzari erantzunez.

Ez dakit zertaz idatzi nuen. Baina Whorf-en teoriak nerabilzkiennik, eta ia ziur euskararen inguruko harremana izan zen. Andolinek 18 zituen orduan, 43 nik. Semea izan zitekeen ia.

Urteak joan, urteak jin, Californian elkartu ginen 1981ean. Biok ari ginen Hizkuntzalaritza ikasten Los Angelesko U.C.L.A. famatuan. Andolin Carlos Otero chomskyzalearen zuzendaritzapean ari zen bere Doktorego Tesia prestatzen. Eta euskal esaldi bitxiaren gramatikaltasunaz makina bat eztabaida izan genuen.

Eta urtebetez bizi izan ginen etxe berreko bi apartamentutan 1982ko udara arte.

Orduan ezagutu genuen guk bertatik Andolin, emazteak eta biok alegia. Gizon ikasia, kultura handikoa, poliglota gaitza; euskaltzale porrokatua ororen gainetik.

Eta pertsona ona, onik baldin bada. Onegia mundu honetarako.

Handik joatean neure Ford-Galaxie gorri ederra saldu nion mila dolarretan. Eta bera han gelditu zen.

Azkeneko bolada honetan maizago ikusten genuen elkar lehen baino. Bai bera eta bai ni Aralarreko Senatari-gai gisa aurkeztu baikin. Ez gintuzten hautatu, jakina denez.

Martxoaren 9an poliziak preso aitzatu zituen bere anaia eta koinata. Lehenago ere gartzelan 4 urtez egonak. Josu Eguzkitza Curtis-era eraman dute (Pontevedran); eta Enkarni Blanco koinata Soto del Real-era. 3 urte beretzera falta zutela, eta barrura berriro.

Familia osoa kolpatu gertatu zen, noski, eta Andolin bera ere bai.

Andolinen tragediari horrela abertzale familiarren oinazea erantsi zaio.

Eta nik neuk bederen Tobar-Eguzkitza-tzar gutxie helarazi nahi diet neure mezu xumea.

Ez etsi, otoi!